

## Kutxabankek urteroko zuzendaritza-batzarra egin du

**2024ko martxoaren 1ean.** Kutxabankek zuzendaritza taldearen urteroko bilera egin du goizean Gasteizko Europa Jauregian, eta bertan Anton Arriola erakundeko presidentek eta Eduardo Ruiz de Gordejuela kontseilari delegatuak iaz lortutako emaitzak aztertu dituzte, finantza Taldeak 2024rako dituen aurreikuspenak eta etorkizuneko erronka estrategiko nagusiak ikusteaz gain.

Erakundeko presidentek finantza-taldeak bere helburu estrategiko nagusiak lortzeko duen posizio bikaina nabarmendu du eta "inbertitzeko eta erronkak aukera bihurtzeko garaia" dela azpimarratu du, "bezeroaren arretarako banku liderra izateko, produktu eta gaitasunetan sofistikatua, arriskuen kudeaketan bizkorra, digitalizazioan liderra eta sozialki konprometitua".

Kontseilari delegatuak, bere aldetik, Taldearen erronka nagusi jo ditu "Kutxabank lider den negozio-lerro horietan posizionamendua eta merkatu-kuotak indartzea, hala nola hipoteketan, inbertsio funtsetan edo bezeroen aurrezkian, besteak beste eta enpresen segmentuarekiko bokazio berezia izatea".

### **Kutxabanki buruz**

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilan eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.